

Gida



Consortio
Transportes
de Bizkaia
Bizkaiko
Garraio
Partzuergoa




barik

BBVA

bbk =

Bizkaibus

 metro bilbao

Bilbobus

Kolaboratzaile agurgarria:

Bizkaiko garraio publikoan beste aldi bati ekin diogu eta **barik** txartela lehenengo urratsa da bidaia horretan.

Proiektu pilotu hau, zeure parte hartzerik gabe, ezinezkoa litzateke. Izan ere, zure iradokizunak, adierazpenak eta gorabeherak lagungarri izango zaizkigu ondorioak atera eta sistema berri hau hobetzeko eta orokortzeko bidean.

Uste dugu gidaliburu hau lagungarria izango dela **barik** txartela arrakastatsua izan dadin.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.



BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGEOA

CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA

BARIK TXARTELA ERABILTZeko GIDA

1.- ZER DA **barik** TXARTELA?

barik txip txartela da eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGPk) garatu duen proiektu pilotu batean txertatu da. Proiektuan, BGPz gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak, BBK-k eta BBVAk hartu dute parte, garraio gintzan kontakturik gabeko teknologia ezartzeko. Horretarako, 650 pertsonako taldea ariko da lanean.

Txartel pertsonala eta transferiezina da, eta titularrak baino ezin izango du erabili.

Erabiltzaileei emango zaizkien **barik** txartelak BBK eta BBVA finantza erakundeek jaulkiko dituzte eta bakoitzari dagokion logotipoa eramango dute atzealdean.

Probaldian, guztira, 650 **barik** izango dira, aipaturiko mota bietakoak, eta 325 txartel erakunde bakoitzeko. Erabilterraza da erabiltzailearentzat, makinek berdin-berdin hartuko dituztelako txartel biak, baina ez hornitzean, izan ere, erabiltzaile bakoitzak txartelari dagokion erakundean hornitu beharko du.

Txartela BGPk zehazturiko garraio bideetan soilik erabili ahal izango da eta ez du baliorik izango proiektu pilotuaren kanpoko eremuetan eta ibilbideetan.

Garraio bide horietan erabili baino lehen, txartela diruz hornitu beharko da hartarako egongo diren terminaletan.

2.- NOIZ ARTE PROIEKTU PILOTU HAU?

Aurreikusi denez, proba pilotu honek 6 hilabete iraungo du gutxi gorabehera.

barik txartela iraungi egingo da BGPk esperientzia pilotu hau amaitutzat jotzen duenean, nahiz eta aurreikusitako amaiera data baino lehen izan. Titularrak txartela itzuli beharko du proba behin amaituta.



3.- NON ERABILI DAITEKE?

Metroa: Sarrera eta irteera gune bana egongo da Moyua, Areeta, Barakaldo eta Sopelako geltokietan.



Bizkaibuseko lineak: 3516 Mungia Bilbo linea (Artxandako tuneletan). 3522 Bermeo - Mungia - EHU - Gurutzeta linea.

Bilbobus

Bilbobuseko lineak: Linea 71: San Adri n – San Inazio.

4.- ZELAN DABIL BARIK?

barik txip txartela da eta garraioetan kontakturik gabe erabili eta balidatuko egingo da, baita hornitu ere.

Proba pilotuan, **barik** txartelak Creditrans garraio titulua dauka bakarrik, bai eta haren funtzionamendu berdina ere, euskarri berriaren berezitasunez gain.

barik autobusetako eta probetarako metro geltokietako kantzelagailuetara hurreratuz balidatuko da. Txartela 4-5 cm-ra hurreratu eta eragiketa zuzena bada, bidaiaren zenbatekoa kendu egingo da uneko saldotik eta aldi berean gainerako sal-

doa erakutsiko du.

Era berean, soinu- eta argi-seinale bat emitituko du, kantzela-
tzea zuzena ala okerra izan den adierazteko.

Bizkaibusen, helmuga zehaztu behar denez, lehenengo gunea
aukeratu eta geroago txartela hurreratuko beharko da.

Autobusetan, ezin izango da bi bider segidan kanzelatu, ez eta
saldo ez-nahikoa esku diruaz osatu ere.

Proba pilotu honetan, ez dago multibidaia kanzelatzerik, ez
metroan ez autobusetan.

5.- ZELAN HORNITU **barik**?

barik txartelen tituluak BBKren txarteletarako kutxazainetan
eta BBVAren txarteletarako terminal lagunduetan hornituko
dira.

Egindako eragiketaren agiria eskatu daiteke.

Hautatutako erabiltzaileek finantza erakundeetan soilik hornitu
ahal izango dute. Beste edonon egindako horniketa ez da doa-
koa izango, eta ez da dirua itzuliko.

BBKren **barik** txartelak erakunde horren orotarako kutxazai-
netan hornituko dira. Txartela kutxazainaren irakurgailuan
sartuz egingo da eragiketa. Behin sartuta, egin beharreko era-
giketa hautatuko da (Saldoa hornitu).

Kutxazainak txartelari atxikiriko ezkutuko zenbakia eskatuko
du eta pantailako aginduei jarraitu beharko zaie. Gainera,
ezkutuko zenbakia aldatzeko aukera ere izango du erabiltzai-
leak eta gogoratzen errazago den beste bat jarri.

| | |
|-------------------------|--|
| Bul. Nagusia | Kale Nagusia 30 - 48009 (Bilbo) |
| Kale Nagusia | Kale Nagusia 23 - 48001 (Bilbo) |
| Rodriguez Arias 1 | Rodriguez Arias 1- 48008 (Bilbo) |
| San Adrian | San Adrian, 6 - 48003 (Bilbo) |
| Zabalburu | Zabalburu plaza z/g - 48003 (Bilbo) |
| Plaza Biribila | Plaza Biribila 1 - 48001 (Bilbo) |
| Uriortu | Uriortu, 2 - 48007 (Bilbo) |
| Deustuko Unibertsitatea | Unibertsitate z/g - 48007 (Bilbo) |
| Deustuko Zubia | Deustuko Zubia 13 - 48014 (Bilbo) |
| Deustu | Rafaela Ibarra, 35 - 48014 (Bilbo) |
| Bidarte | Agirre Lehendakaria 61 - 48014 (Bilbo) |
| Ibarrekolanda | Arrue z/g - 48015 (Bilbo) |
| Sarriko Unibertsitatea | Agirre Lehendakaria 83 - 48015 (Bilbo) |
| San Inazio | Agirre Lehendakaria 151 - 48015 (Bilbo) |
| Kanariar Uharteak | Kanariar Uharteak 97 - 48015 (Bilbo) |
| Albia | Henao,1 / Mazarredo - 48009 (Bilbo) |
| Errekalde zumarkalea | Errekalde zumarkalea, 26 - 48009 (Bilbo) |
| Ajuriagerra | J. Ajuriagerra, 36 - 48009 (Bilbo) |
| Areeta | Paulino Mendibil,13 - 48930 (Getxo) |
| Erromo | Caja de Ahorros,10 - 48930 (Getxo) |
| Nagusia | Barria,8 - 48930 (Getxo) |
| Barakaldo | Herriko Plaza,5 - 48901 (Barakaldo) |
| Libertad-Askatasuna | Askatasuna-Libertad,13 - 48901 |

| | |
|-----------------------|--|
| | (Barakaldo) |
| Foruak | Bizkaia,12 - 48901 (Barakaldo) |
| Barakaldo-Enpresak | Bizkaia,12 - 48901 (Barakaldo) |
| San Bizente | San Bizente,50 - 48902 (Barakaldo) |
| Gurutzetako Ospitalea | Gurutzetako plaza z/g 48903 (Barakaldo) |
| Gurutzeta | Gurutzetako plaza 1 - 48903 (Barakaldo) |
| Sopela | Akilino Arriola, 2 - 48600 (Sopela) |
| Mungia | Elorduigoitia,1 - 48100 (Mungia) |
| EHU | Sarriena - 48940 (Leioa) |
| Sondika | Txorierra, 42 A - 48150 (Sondika) |
| Derio | Mungialde, 2 - 48160 (Derio) |
| Bermeo | Lamera, 1 - 48370 (Bermeo) |
| Bizkaiko Jaurerria | Bizkaiko Jaurerria, 9 - 48370 (Bermeo) |

BBVAren **barik** txartelak erakunde honen terminal lagunduetan hornituko dira, ondoren zehazten diren bulegoetan. Ordutegia 8:30etik 14:30era bitartean izango da, astelehenetik ostiralera.

BBVA

-ren bulegoen zerrenda

| | |
|------------------------|---|
| Bilbao-Jado plaza | Ertzilla,16 - 48009 (Bilbo) |
| Bilbo-Kale Nagusia 12 | Kale Nagusia,12 - 48001 (Bilbo) |
| Bilbao-Kale Nagusia 36 | Kale Nagusia, 36- 48009 (Bilbo) |
| Bilbo-Bertendona | Bertendona,4 - 48008 (Bilbo) |
| Bilbo-Ertzilla | Ertzilla,31 - 48011 (Bilbo) |
| Bilbao- S. Pedro plaza | Agirre Lehendakaria, 15 - 48014 (Deustu) |

| | |
|-----------------------|--|
| Getxo- Areeta | Mesede, 34 - 48930 (Areeta) |
| Getxo- Nagusia | Nagusia 21 izk. Andres Larrazabal - 48930 (Areeta) |
| Barakaldo-Sta. Teresa | Askatasun etorbidea, 26 - 48901 (Barakaldo) |
| Barakaldo-Nafarroa | Nafarroa,11 - 48901(Barakaldo) |
| Sopela | Akilino Arriola,10 - 48600 (Sopela) |
| Mungia | Alkartasuna,6 - 48100 (Mungia) |
| Bermeo-Lamera | Haroko Lopez Diaz, 4 - 48370 (Bermeo) |

6.- ZENBAT DIRUZ HORNITU TXARTELA?

Proba pilotu honetan garraioa doan da titularrarentzat, hilean gehienez 55 eurora arte, probak iraun bitartean. Gastu hori BGPk hartuko du bere gain. Kopuru hori gaintutuz gero, txartela kenduko zaie erabiltzaileei.

barik txartelak gehienez 50 euroko saldoa izan dezake une bakoitzean.

Titularrak nahi duen guztietan hornitu ahal izango du saldoa txartelean, betiere lehen aipatutako mugak errespetatuz.

Bidaiari bakoitzak nahi beste diruz hornitu dezake txartela, kontuan izanik gutxienerako kopurua 5 € dela eta gehienekoa 50 €.

7.- NOLA KONTSULTATU TXARTELA?

barik txartelen tituluak honako lekuetan kontsultatu daitezke: BBKren kutzazainetan (BBK txartelak), BBVAren terminal lagunduetan (BBVA txartelak) eta Metro Bilbaok proba piloturako atondu dituen lau geltokietako Txartel Makina Automatikoetan (txartel guztiak). Saldoa eta txartelarekin egingdako azken 10 mugimenduak kontsultatu daitezke.

Kutzazain automatikoen kasuan, kontsulta egiteko txartela

sartu behar da kutzazainaren irakurgailuan, menuan eragiketa hautatu (Eragiketen kontsulta), eta pantailako aginduei jarraitu beharko zaie.

Egindako eragiketaren agiria eskatu daiteke. Metroko makinaren kasuan, saldoa baino ez da inprimatuko.

Kontsultatzeko lekuak 5. atalean adierazitakoak dira eta horiez gainera, lehen aipatutako Metro Bilbaoren lau geltokiak.

8.- ZER EGIN GORABEHERARIK EGONEZ GERO?

barik txartela erabiltzerakoan gorabeherarik sortzen bada, Call Center zerbitzuari jakinarazi beharko zaio (telefonoa: 900-50.63.65). Hauxe izango da ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 22:00etara, eta larunbat goizetan 9:00etik 14:00etara.

Telefono horretan **barik** txartelari buruzko kontsultak eta gorabeherak jasoko dira eta nola jokatu adieraziko da, txartela galdu, ostu edo apurtzen bada.

Gorabehereri 24 orduren barruan erantzungo zaie, jaiegunetan izan ezik, hurrengo astegunera arte itxaron beharko da-eta.

9.- ZER EGIN BARIK TXARTELAK FUNTZIONATZEN EZ BADU?

Kontakturik gabeko sisteman arazorik egonez gero, erreserbako Creditrans arrunta emango zaie erabiltzaileei, 5 €-koa, bidaia amaitu ahal izateko. Hori erabiltzeko, txartelarekin batera gorabeheren partea eduki behar izango da.

Txartela ondo ez badabil eta aldatu nahi izanez gero, honako lekuetara joko da: BBVAK txartel hau dela-eta jarri dituen bulegoetara (BBVA txartelak), erabiltzaileen arretarako BBK-k dituen lau bulegoetara (BBK txartelak), BGPra (txartel guztiak) edo ERYBAren bulegora (txartel guztiak). Ondo ez dabi-

len txartelaren ordez berria emango dizute, baina agiri bat sinatu eta bete beharko duzu.

Hauek dira helbideak:

BBK - Bezeroak Atenditzeko Bulegoak

| | |
|---------------------------------|---|
| Bilbo-Kale Nagusia 30 Areeta | Kale Nagusia 30 - 48009 (Bilbo) Paulino Mendibil 13, Areeta - 48930 (Getxo) |
| Barakaldo | Herriko Plaza 5 - 48901 (Barakaldo) |
| Mungia | Elorduigoitia 1 - 48100 (Mungia) |

Apirilera arte (hori barne), bulegoa horiek zabalik egongo dira arratsaldeetan astelehenetik ostegunera) eta larunbat goizetan.

BBVA - Bezeroen Arretarako Bulegoak

| | |
|-----------------------|--|
| Bilbo-Jado plaza | Ertzilla, 16 - 48009 (Bilbo) |
| Bilbo-Kale Nagusia 12 | Kale Nagusia, 12 - 48001 (Bilbo) |
| Bilbo-Kale Nagusia 36 | Kale Nagusia, 36 - 48009 (Bilbo) |
| Bilbao-Bertendona | Bertendona, 4 - 48008 (Bilbo) |
| Bilbo-Ertzilla | Ertzilla, 31 - 48011 (Bilbo) |
| Bilbo-San Pedro plaza | Agirre Lehendakaria, 15 – 48014 (Deustu) |
| Getxo-Areeta | Mesede, 34 - 48930 (Areeta) |
| Getxo-Nagusia | Nagusia, 21 izk. Andres Larrazabal - 48930 (Areeta) |
| Barakaldo-Sta. Teresa | Askatasun Etorb., 26 - 48901 |

Barakaldo-Nafarroa
Sopela

(Barakaldo)
Nafarroa,11 - 48901 (Barakaldo)
Akilino Arriola,10 - 48600
(Sopela)

Mungia
Bermeo-Plaza

Alkertasuna,6 - 48100 (Mungia)
Lope Diaz de Haro, 4 - 48370
(Bermeo)

Ordua: 8:30-14:30, astelehenetik ostiralera.

ERYBA

Call center: 900-50.63.65

Helbidea: Iparragirre 55, beheko solairua, 14. dptua.

Ordua: 8:00-22:00, astelehenetik ostiralera

Larunbata: 9:00-14:00

www.eryba.es

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

Telefonoa: 94-476.61.50

Helbidea: Ugasko 5 bis – 1. solairua

Ordua: 8:30-17:00, astelehenetik ostegunera

Ostirala: 8:30-14:30

www.cotrabi.com



BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA
CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA

10.- ZER EGIN BARIK GALDU EDO OSTEN BADA?

Horrela bada, 9. atalean adierazitakoa egin behar da; baina salbuespen batekin: txartel berria Eryba eta Bizkaiko Garraio Partzuergoan baino ez da emango.

11.- ZER DAKAR BARIK PROIEKTUAN PARTE HARTZEAK?

barik txartelaren erabiltzaile baimenduek Bizkaiko Garraio Partzuergoak agindutako eta gida honetan azaldutako leku eta baldintzetan erabili beharko dute txartela. Horrez gainera, proba pilotuak irauin bitartean gertatuko den edozein arazo edo gorabehera jakinarazteko konpromisoa hartu dute, bai eta proba pilotua dela-eta egingo diren prestakuntza eta jarraipen jardueretan parte hartzeko.

barik txartelaren titulua, euskarri berriari egokitutako Creditrans titulua denez, txartel hori erabiliko dutenek Creditrans txartelaren funtzionamendu araubide juridiko bera, eskubide berak (aseguruak, garraioa, tarifak, hobariak...) eta betebehar berak izango dituzte, **barik** txartelari buruz zehaztutakoa ere kontuan izanik.

Titularrak ez badu betetzen orri hauetan dakarrena, txartela baliogabetu ahal izango da edozein unetan eta proba pilotutik kanpo geratu ahal izango da. Edonola ere, txartela baliogabetzen bada eta proiektutik kanpo geratzen bada, Titularrak txartela erabiltzeko eskubidea galduko du.

Titularrak bere borondatez utzi ahal izango du proiektua.



